Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pello Etxeberria Lete

Soraluze, Gipuzkoa



Aurkibidea

Biografia



Sagar-errekan jaio zen eta bertan bizi izan zen 1989ra arte. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, Jose Mari Larrañaga *Txistu*rekin batera.

Zintak

SOR-108

- **Proiektua**: Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ginea, Leire - Guenetxea, Tere
- **Data**: 2016-07-19
- **Iraupena**: 52 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Sagar Errekan arropa garbitzen

- **Erref**: SOR-108/008
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:09:24. **Bukatu**: 00:11:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Bakoitza bere oholarekin joaten zen ibaira arropak garbitzera. Sasien gainean lagatzen zituzten eguzkitan lehortzen. Anila botatzen zioten arropa bustiari. Garbitzeko lekua non dagoen kontatzen du. GOL dagoen lekuan zelai handia zegoen, errotarako kanala pasatzen zen eta soroa izan zen garai batean. Sagar Erreka izena nondik etor daitekeen aipatzen dute. Sagarrondoak non zeuden kontatzen du.

2. Sagar Errekan arrantzan: eskuz, sardexkarekin eta kainaberarekin

- **Erref**: SOR-108/011
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:12:47. **Bukatu**: 00:14:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Eskuz eta sardexkarekin arrantzatzen zuten. Peiok makila, haria eta okertutako orratzarekin harrapatu zituen lehen ezkailuak. Sardexkarekin sargoak arrantzatzen zituzten eta eskuz amuarrainak. Aingirak ere hartzen zituzten.

3. Bizimodu aldaketarekin Sagar Errekara inor ez

- **Erref**: SOR-108/013
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:15:03. **Bukatu**: 00:17:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Putzura joaten ziren auzokoak eta kaletarrak. Familietan ohiturak aldatu zirenean, aldatu egin zen Sagar Errekako giroa. Bolatokia eta mahai batzuk zeuden. Putzua oso gertu zegoen.

4. Ur jauzia eta Zubitxoko presa

- **Erref**: SOR-108/014
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:17:56. **Bukatu**: 00:20:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Ur jauzia oso jende gutxik ezagutzen du baina leku interesgarria da. Gorago presa bat zegoen. Zubitxo izeneko zubi bat zegoen, Soraluze eta Bergarako mugan, eta Gallastegitorrerako bidea zegoen bertan. Etxola bat zegoen eta jendea bizi zen han. Lehen presatxo bat zegoen goraxeago eta handik eibartarrek hartzen zuten ura. Peioren aita presaren mantenuaz arduratzen zen.

5. Hirurak Bat indar-etxea

- **Erref**: SOR-108/015
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:20:28. **Bukatu**: 00:24:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Hirurak Bat izeneko indar-etxea zegoen Sagar Errekan. Sologoeneko jabeena zen. Bi alternadore handi zeuden. Peioren etxeko arropa makina artean lehortzen zuten, haize beroa botatzen zutelako. Indar-etxera Ibarrolako

presatik etortzen zen ura kanalean zehar. Uraren bidea zein zen kontatzen du. Ur hori Eibarrera eramaten zen. Argindarra kainoi fabrikarako izaten zen. Herrirako argindarra Malmeroneko indar-etxetik lortzen zen.

6. Trebetasun desberdinetarako igerilekuak

- **Erref**: SOR-108/017
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:26:07. **Bukatu**: 00:28:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Igarateko etxearen azpitik Sagar Erreka pasatzen zen ibairaino. Putzu txikia eta putzu handia zeuden, igerian ikasteko. Non zeuden kontatzen du. Igerian pixkat ikasitakoan, indar-etxera joaten ziren, ibaira; igerian ondo ikasitakoan, Olara.

7. San Martzialgo depositua eta Sagar Errekako presak

- **Erref**: SOR-108/018
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:31:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
San Martzialgo deposituak bertan jarraitzen du. Indar-etxeko makinak martxan jartzeko, emari handia izan behar zuen. Mendiaren forma dauka. Ibarrolako presak ere bertan jarraitzen du eta egoera onean dagoela dio Txistuk. Sagar Erreka presa Zubitxo inguruan dagoena da, Eibarrera ura daramana. Beste lau presa aipatzen dituzte.

8. Ur jauzia ia desagerrarazi zutenekoa

- **Erref**: SOR-108/020
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:32:24. **Bukatu**: 00:33:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:
Ur jauziaren azpikaldea Jose Mari eta Jabi Larrañagari esker omen dago egoera onean. Saihesbidea egin zutenean, kamioiak lurra eta harriak garraiatzen hasi ziren inguru hartara eta Jose Marik eta Jabik geldiarazi egin zituzten, Aldundiari edo basozainari jakinarazita. Lautada bat dago mahaiak jartzeko modukoa.

9. Presa lurrez bete zenekoa

- **Erref**: SOR-108/026
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:41:17. **Bukatu**: 00:43:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:
Uholde batzuetan presa ia goraino bete zen lurrez eta hondeagailuekin atera zuten. Txistu eta bere anaiek arrainak eta karramarroak hartu eta baldeetan errekaren goiko aldera eraman zituzten. Beste inor ez omen zen arduratu. Eibarrerako presa egin ostean, Sagar Erreka ia urik gabe geratu zen. Alde handia izan zen.

10. Sagar Errekan kalean argirik ez

- **Erref**: SOR-108/030
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:49:38. **Bukatu**: 00:52:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Herrirako argindarra Malmero indar-etxeak ematen zuen eta Sologoeneko indar-etxeak kainoi fabrikarako. Sagar Errekako etxeetan argia zeukaten baina kalean ez. Udalak Sagar Errekako kalerako argia ordaintzen omen zuen baina instalazioa auzotarrek ordaindu zutela dio Jose Marik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com